



EBAZPENA, 2022ko martxoaren 14koa, Hezkuntza Saileko Langileriaren Kudeaketako zuzendariarena, 2022ko otsailaren 15ekoa ebazpena aldatzen duena. Horren bidez hainbat ikastetxetan hutsik dauden behin-behineko lanpostuak zehazten dira; lanpostuok Bigarren Hezkuntzako, Lanbide Heziketako, Hizkuntza-Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoetako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko ikastetxeetan daude, eta kidego hauetakoak dira: Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoetako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko Katedradun eta Irakasleen Kidegoetako, eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoak.

Hezkuntza sailburuaren 2021eko azaroaren 5eko aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren menpeko ikastetxeetan lanpostuak betetzeko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza-kidegoetako funtzionarioen arteko lekualdatze-lehiaketa deitzen duenak, hogeita laugarren oinarrian xedatutakoaren arabera (EHAA 2021eko azaroaren 12a), 2022ko otsailaren 15eko Hezkuntza Saileko Langileriaren Kudeaketako zuzendariaren ebazpena eman zen, ikastetxetan hutsik dauden behin-behineko lanpostuak zehazten zirena. Lanpostuok Bigarren Hezkuntzako, Lanbide Heziketako, Hizkuntza-Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoetako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko ikastetxeetan daude, eta kidego hauetakoak dira: Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoetako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko Katedradun eta Irakasleen Kidegoetako, eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoak.

Ebazpen hori argitaratu ondoren, zenbait transkripzio-akats antzeman dira, baita Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan eta Lanbide Heziketako ikastetxeetan dauden lanpostu hutsak ere.

Horren ondorioz,

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Aldatzea Langileriaren Kudeaketako zuzendariaren 2022ko otsailaren 15eko Ebazpena, Bigarren Hezkuntzako, Lanbide Heziketako, Hizkuntza-Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoetako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko ikastetxeetan dauden behin-behineko lanpostu hutsak zehazten zituena, eta Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoetako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko Katedradun eta Irakasleen Kidegoetako, eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoak kidegoak dira, Hezkuntzako sailburuaren 2021eko azaroaren 5eko Aginduaren bidez deitutako irakasleen kidegoetako funtzionarioen lekualdatze-lehiaketan betetzeko. Horrela, behin-behineko lanpostu hutsak ebazpen honen eranskinean argitaratutakoak dira.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango diote Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Gasteizen, 2022ko martxoaren 14an

**BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO
LA DIRECTORA DE GESTIÓN DE PERSONAL**